



BIDE- GURU- TZEAN

**PARTAIETZA
KOMUNITARIOTIK
ELKARBIDETZA
SUSTATZEN**

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL





Aitortu – Ez merkataritzarako – Partekatu baimen beraren arabera 3.0. Material hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, beti ere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarritutako beste obra berri bat egiten bada, hau bezalako lizentzi eskuratuta baina ezin da banatu. Lizentzi osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

KOORDINAZIOA:

Sheila Padrones Gil

ERREDAKZIOA:

Emaús Fundación Social: Sheila Padrones Gil

SOS Racismo Gipuzkoa: Jone Urionaguena

CEP Alforja: Eva Carazo Vargas

LAN TALDEA:

Emaús Fundación Social

SOS Racismo Gipuzkoa

CEP ALFORJA

Butroi Bizirik en Transición

Cenderos

Grupo de Trabajadoras de Hogar de SOS Racismo

Gu Haziak Gara

Fundación Adsis

Fundación Cristina Enea

Saretuz

ITZULPENA:

Idoia Larrañaga Hernández

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Iban Buján Otero

INPRIMATZEA:


Guccia



emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL



BABESLEA:

G GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COORDINACIÓN PARA
EL DESARROLLO





AURKIBIDEA

1. ABIAPUNTUA	2
2. GURE BIDEAK EZAGUTZEN	2
1. Protagonistak	3
2. Tokiko gizarte eragileak	5
3. Erakunde dinamizatzailerak	5
3. BIDEAK GURUTZATZEN	6
4. BIDEA: IRAKATSI, IKASI ETA SISTEMATIZATU	7
5. IBILBIDEA: TOPAKETA, ELKAR-TRUKEA ETA HAUSNARKETA	8
1. Elkar ezagutzen	8
2. Praktikak elkar-banatzen eta hausnartzen	8
2.1. Darkum	9
2.2. Gu Haziak Gara	9
2.3. Cenderos	10
2.4. Etxeko Langileen Taldea SOS Arrazakeria Gipuzkoa	10
2.5. Butroi Bizirik en Transición	11
3. Zikloaren itxiera	11
4. Egindako bidea elkar-banatzen	12
6. HELMUGA: IKASKUNTZAK ETA KONKLUSIO OROKORRAK	13
1. Bizi-Hezirekin ibilitako bidea baloratzen	13
2. Hausnarketa bateratuak	14
2.1. Eraldaketen inguruan	14
2.2. Antolatzeko moduen inguruan	15
2.3. Estrategien, metodologiaren eta lan-estiloen inguruan	16
2.4. Komunikazioan eta difusioan	17
3. Bizikidetzaren sustatu partaidetza komunitariotik	22
7. ZERUMUGARA BEGIRA	28
Eraldaketa dagoeneko mugimenduan dago	
8. DIFUSIORAKO MATERIALAK	33

1. ABIAPUNTUA

BideGurutzean proiektuak gure komunitateak inklusiboagoak izaten lagundu nahi du. Horretarako, gizarte erakunde ezberdinen arteko topaketa bultzatu da. Erakunde horiek partaidetza komunitarioko ekimenak garatzen dituzte, ekonomia sozial eta solidarioaren baloreetatik abiatuta.

Bidegurutze hau Emaús Gizarte Fundazioak eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak bultzatu dute, CEP Alforja-rekin (Costa Rica) lankidetzan estuan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesarekin. Bertan, Adsis, Butroi Bizirik en Transición, Cristina Enea Fundazioa, Darkum, Gu Haziak Gara, SOS Arrazakeriako Etxeko emakume Langile tadea eta Saretuz, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Cenderos, Costa Ricako Immigrantearen Gizarte Eskubideen zentroa, bideak eta mugak zeharkatzearen aldeko apustuan, beste mundu posible batzuk eraikitzeko.

BideGurutzearen abiapuntua aurreko prozesuetan dago, lehen aipatutako erakunde horiek bat egin dutelarik. Nagusiki, (H)aritzuz dokumentuan jasotako estrategia politiko-pedagogikoak eta BiziHezi komunitate inklusiboan etengabeko eraikuntzako tresnak bideratu zuen.

Dokumentu honek BideGurutzean proiektuak posible egin duen topaketa- eta truke-esperientziaren sistematizaziotik eratorritako ikaskuntza nagusiak biltzen ditu.

2. GURE BIDEAK EZAGUTZEN

BideGurutzean proiektuan parte hartzen dugun erakundeok ziur gaude denok dugula zer ikasi eta zer irakatsi. Horrela, Hezkuntza Herrikoaren ikuspegitik abiatuta, 11 gizarte erakunde elkartu ginen hainbat alditan 2022ko irailaren eta 2023ko uztailaren artean, elkarren artean eta gure egiteko modutik ikasteko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua deitzen diogun horretan.

Elkartrukea kolektibo bakoitzak gai jakin batean garatutako ezagutza eta esperientzian oinarritu zen. Ezagutza eta esperientzia hori aurretik adostu zen, gainerakoek praktika aberasteko duen gaitasunagatik (ingurumen-jasangarritasuna, gizarteratzea, ekonomia sozial eta solidarioa, lan-eskubideen defentsa). Horrela, bakoitzak egindako bideak ikaskuntza esanguratsuak sortu zituen elkarriketa gogoetatsu eta kritiko baterako bidea finkatu zuen.

Ibilbide bateratu honetan lan egin dugun erakundeek hainbat eginkizun izan ditugu bidean:

1. PROTAGONISTAK

Irakaskuntza-ikaskuntza saio bat dinamizatu zuten erakundeak dira, beren ekintza eremuan garatzen joan diren ikasgaiak eta indarguneak elkarbanatuz.



DARKUM

Darkum Donostiako biztanle migratzaile gazteenei eguneroko errealitateari aurre egiteko babesa eta laguntza ematen dien elkarte da. Gehienak magrebtar jatorriko gizon gazteak dira.

Babesa eta laguntza emateaz gain, behar dituzten baliabideak ere ematen dizkie, beraien bidetara hasiera emateko profesional edo hezkuntza mailan, euskal gazteriaren profil berriak normalizatzeko bidean, bi noranzkoko inklusioaren eta sare feminista intersektional baten sorreraren bidez.

Errealitate horren ondoan ibiltzean metodologiaren laborategi bihurtu du Darkum, taldearen beharretarako konfiantzazko espazio egokiak sortzen ikasi arte.



GU HAZIAK GARA

Gu Haziak Gara irabazi-asmorik gabeko elkarte da, emakumeak buru dituen eta erabiltzaile gehienak ere emakumeak dituen. Bere helburua da gizarteratzea eta laneratzea laguntzea.

Bere egoitza Aretxabaletan du, eta bazterketa arriskuan dauden pertsonekin lan egiten du, hiru ardatz nagusitan oinarrituta: soziala, prestakuntza eta lana. Horrela, jostuntza edo eskola indartzeko tailerren bidez Debagoienan sarea sortzen ari dira.

Bide horretan komunitatea sortzen dute eta ekimen ekonomikoak bultzatzen dituzte, emakumeen jakintzak eta espazioak balioan jartzen dituenak, egunerokoan elkar laguntzeaz eta zaintzeaz gain.



CENDEROS

Cenderos, Immigrantaren Gizarte Eskubideen Zentroa, Costa Rican sortu zuten 1999an emakume nikaraguarrek, giza eskubideak, eskubide ekonomikoak eta sozialak sustatzeko migratzaileen, nazioarteko babes eskatzaileen eta Costa Rica eta Nikaragua arteko mugaz gaindiko eremuan bizi direnen eskubideak.

Bere lan-ardatzak dira: genero indarkeriaren prebentzioa, eskubideak lortzea, tokiko ekonomia alternatiboa eta berehalako erantzuna laguntza humanitarioko kasuetan.

Estrategia ezberdinen bitartez (prestakuntza, laguntza psikosoziala, ekimen ekonomiko solidarioak bultzatzea...) mugaz gaindiko lotura komunitarioak sendotzen dituzte, lurralde- edo administrazio-mugaketaz haratago doazen indarkeriarik gabeko komunitateak eraikiz.



SOS ARRAZAKERIAKO ETXEKO LANGILEEN TALDEA

Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Etxeko Langileen Taldea, etxeko eta zaintzako sektorean lan egiten duten atzerritar jatorriko emakumeen talde bat da. Sarean egiten dute lan beraien eskubideak defendatzeko eta ongizate soziala sustatzeko.

Taldea Gipuzkoako hainbat herritako emakumeek osatzen duten arren, egoitza nagusia Errenteriako SOS Arrazakeriaren bulegoan dute, eta bertatik etxeko lanetan eta zaintzan lan-aholkularitza eskaintzen da.

Aholkularitza gain, talde hori harrera- eta konfiantza-etxe bihurtu da gu zaintzera datozen emakume horientzat, beraien artean zaintzeko elkartzen direlako.



BUTROI BIZIRIK EN TRANSICIÓN

Butroi Bizirik en Transición ingurumenaren aldeko erakundea da, eta Uribe Butroeko pertsonen eta lurraldearen gaitasunak aztertzen ditu, krisi ekologikoaren ondorioei aurre egiteko eta horiek egunerokotasunean eraldatzeko, ekintza txikiak gehituz.

Jakitun izanik aldaketa ez dela etorriko kutsadura gehiago eta baliabideen ustiapen handiagoa sortzen ari direnengandik, modu kolektiboan egiten dute lan eta ekintzara gonbidatzen dute "Kezkatzen bazaitu, egizu!" lelopean.

Sare- eta lankidetzeta-lana apustu metodologiko bat da, elkarte eta ekimen ugarirekin komunitatea sartzeko aukera ematen diena.

2. TOKIKO GIZARTE ERAGILEAK

Irakaskuntza-ikasteko prozesua tokiko gizarte-eragileen ekarpenarekin aberastu zen. Eragile horiek beste talde batzuen agentzia-gaitasuna sendotzen lagundu zuten, saioetan parte-hartze aktiboa izan baitzuten, eta hausnarketa kolektiborako ekarpena egin zuten, beren esperientzian eskuratutako jakintzetatik eta ezagutzetatik abiatuta.

Erakunde horiek izan ziren: Cristina Enea Fundazioa, ingurumen-jasangarritasunean esperientzia duena; Adsis, Hegoaldeko pertsonekin hezkuntza formalean egiten duen lanean; Saretuz, kontsumo arduratsua ikuspegi feministatik sustatzen egiten duen lanean; eta Emaúsen gizarteratze sailak gizarteratzeko egiten dituen ekarpenak.

3. ERAKUNDE DINAMIZATZAILEAK

Bestalde, SOS Arrazakeria Gipuzkoak, Emaús Gizarte Fundazioak eta CEP Alforjak prozesua dinamizatu zuten, eta erakundeei laguntza indibiduala eskaini zieten, ibilitako bideei begirada berriekin begiratu ahal izateko.

3. BIDEAK GURUTZATZEN

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua esperientzien-sistematizazio metodologiaren arabeko talde-hausnarketarekin elikatu zen. Metodologia honek orientazio-ardatz bat adostea proposatzen du, kezka edo interes elkar-banatuaren inguruan artikulatuko dituen, esperientzia batek eskaintzen dituen ikaskuntza aukeren aberastasun handian gal ez dadin. Sistematizazio ardatz hori, beraz, ikuspegi bateratu batean bihurtzen da, eguneroko lana gelditu eta norberaren eta beste talde batzuen jardunari buruz hausnartzeko, ikaskuntzak barneratzeari eta ekintza- eta eraldaketa-ahaleginak sendotzeko.

Prozesu honetan, parte hartu genuen erakundeentzat interesgarria izan zen honako ardatz honi buruz hausnartzea:

Erakundeak egiten ari diren horretatik guztietatik, zer izaten ari da eraginkorra pertsonak eraldatzeko?

Hausnarketa hau galdera bateratu batzuetatik sortu zen eta saio bakoitza prestatzearekin elikatu zen. Era berean, erakunde bakoitzeko gainerako parte-hartzaileei zabaldu zitzairen, elkarte bakoitzaren hausnarketa nagusiak biltzen dituen bideo kolektibo bat landuz.

Irudi honek laburbiltzen du jarraitu den esperientzietan sistematizazio-prozesua:



Ibilbide honetan, Emaúsek, SOS Arrazakeria Gipuzkoak eta CEP Alforjak saioak prestatzeko behar zen barne-hausnarketa lagundu zuten, erakunde bakoitzeko lantaldeak irakaskuntza-ikaskuntza prozesura eramango zuten ekarpenen eraikuntza eta hausnarketan parte har zezaten.

Dokumentu hau sistematizazio-prozesua elkar-banatzeko bide bat da. Gainera, lortutako hausnarketa nagusietako batzuk berreskuratzen dituen egutegi/planifikatzaile batekin osatzen da prozesua.

4. BIDEA: IRAKATSI, IKASI ETA SISTEMATIZATU

Irakaskuntza-ikaskuntza topaketak, parte hartu zuten erakundeek beraien bideak ikaskuntza kolektiboko komunitate inklusibo batean lotzeko bide gisa ulertu ziren.

Proiektuaren hasieran ibilbide bat zehaztu zen, hemendik abiatuta zazpi saio birtual egin ziren, parte-hartzaileen eskuragarritasuna eta kontziliazioari erantzuten zieten espazioetan eta ordutegietan. Ahal izan zen guztietan, EAEko erakundeak aurrez aurre bildu ziren erakunde berberak emandako espazioetan. Azken saioa aurrez aurre egin zen, Costa Ricako taldeetako bi ordezkari Euskal Herrira egindako bisita aprobetxatuz.

Hau da ibilitako ibilbidea:



5. IBILBIDEA: TOPAKETA, ELKAR-TRUKEA ETA HAUSNARKETA

1. ELKAR EZAGUTZEN

Lehenengo saioak parte hartzaileen artean elkar ezagutzea bilatu zuen. Horretarako, talde bakoitzak aurkezpen bat elkarbanatu zuen, sorrarazi zuten arrazoiei, bilatzen dituen helburuei eta helburu horiek lortzeko egiten dituen jardueri buruzkoa. Aldi berean, nor bere ideiak identifikatu zituen, eta ideia horiek sakontzea gustatuko litzaioke, entzuten ari zena abiapuntu hartuta, hurrengo saioetan berriz ere ekin ahal izateko.

Saio honetan sistematizazio-ardatza ere adostu zen, erakunde bakoitzak gizarte-eraldaketari egiten dion ekarpenari buruzko hausnarketa bateratua erraztuko zuena.

En esta sesión se acordó también el eje de sistematización que facilitaría la reflexión conjunta

2. PRAKTIKAK ELKAR-BANATZEN ETA HAUSNARTZEN

Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren hurrengo topaketetan izan ziren buzu, Darkum, Gu Haziak Gara, Cenderos, Etxeko Langileen Taldea SOS Arrazakeria eta Butroi Bizirik en Transición, hurrenez hurren. Talde hauek beraien esperientzia kontatu eta hausnartu zuten, bereziki besteei interesatzen zitzaizkien alderdiak azpimarratzen, ikuspegi politiko-pedagogiko komunean oinarritutako eraldaketa intentzioarekin.

Saioak modu dinamikoan egin ziren, erakunde bakoitzari erosoago sentitzeko modua emateko askatasuna emanez, baina, betiere, elkarriketarako eta hausnarketarako elkar-truke bat izan zedin saiatuz, praktika zehatzetik abiatuta.

Jarraian, erakunde bakoitzaren ikaskuntza nagusietako batzuk azalduko ditugu:

2.1. DARKUM

Darkum-ek laguntza operatiboa eskaintzen du baliabideak eta jakintzak elkar-banatzeko. Baina bide honetan ezinbestekoa da emozionalagoa den laguntza. Herritar hauen ondoan ibiltzeko erronkan, konfiantza espazioak sortzea oinarrizkoa dela ikasi du, parte-hartzaileek beraien bizipenak, prozesuak, zailtasunak elkarbanatu ahal izateko, eta, bertan, elkar identifikatuta senti daitezten eta babesa eman diezaieten.

Horrela, entzumenetik mobilizatzen da, ahotsa emanez eta parte hartzen dutenekin kode komunak bilatuz bere proposamenak gauzatzeko: mendira edo hondartzara irteerak, serigrafia tailerrak, zurgintza, bizikletak konpontzea, zinera joatea, futboleko jokatzeko, kontzertu batera...

Gainera, kode berdinetan hitz egitea garrantzitsua dela gogorarazi zuen: lengoaiak, kultura-erreferenteak, aisialdira eta dibertsiorako espazioak, teknologia berrien erabilera, jende gaztearentzat ohikoak diren eta beste belaunaldi batzuentzat ezezagunak izan daitezkeenak...

Besteak beste, saio honetan hausnartu genuen nola lagun diezaguketen kode berri horiek elkarrizketarako bide berriak irekitzen, errealitate desberdinei buruz ikasi eta hauek gerturatzeko epaitu gabe, beste pertsonen lekuan jarriz. Hurbiltzea eta enpatizatzea lotura eraldatzaileak sortzen hasteko modu bat da.

2.2. GU HAZIAK GARA

Gu Haziak Gara erakundeak bere lana gizarte-, prestakuntza- eta lan-ardatzetan integratzen du, pertsonen ongizatea erdigunean hartuta. Haien sekretua hiru ardatzak bateratzea da, bakarra izan dadin, pertsonen eta bizi diren komunitatearen benetako beharrak arretaz, maitasunez eta pasio handiz zainduz.

Hori dela eta, egoitzan giro goxoa eta atsegina dago hurbiltzen direnei harrera egiteko, eta lanaren aurretik beti dago pertsona, nola dagoen jakin, bizipena, prozesuak eta zailtasunak elkar-banatzeko. Horri esker, pertsonak osotasun baten parte sentitzen dira eta proiektuan parte hartzen dute.

Pertsonaren ongizateak bideratzen du, halaber, Gu Haziak Gara erakundeak bere esperientzia urteetan ehuntzen joan den sarea hedatzeko egiten duen ahalegina, komunitatean bere espazioa aurkitzeko eta komunitatea pertsona guztien inklusioan inplika dadin.

Ekintzak partaideen interes eta trebetasunetatik bultzatzen dira, eta beraiek dira prestakuntzak ematen dituztenak (jostakuntza, kakorratza, estanzak...). Eta ekonomia bazterketa modu bat ez izateko, diruz edo denboraz ordain daiteke, zerbitzuak eskainiz edo prestakuntza berri batean ezagutzak elkarbanatuz.

Muralen diseinu eta elaborazio parte-hartzailea integratzen den komunitarioko beste estrategia bat da, eta, aldi berean, erabakiak hartzeko eta lankidetzan aritzeko modu parte-hartzaileak probatzeko bide bat.

Gainera, jostakuntzaren jardura ekonomikoaren bidez bazterketa egoeran dauden pertsonentzat gizarte- eta lan-aukerak sortzen dituzte.

2.3. CENDEROS

Migrazio-prozesuetan emakumeak oso egoera zaurgarrian egoten dira indarkeria-mota desberdinekiko. Horregatik, Cenderos-ek laguntza psikosozialeko estrategia bat garatu du, migrazioari berezko zentzua emateko berrikuspina eta sendaketa barne hartzen dituena.

Cenderos erakundeko langileak pertsonen sustatzaile eta laguntzaile dira beraien bilaketa eta autonomia propioan. Horrela, lidergo pertsonalak zein kolektiboak babesten dituzte Hezkuntza Herrikoiaaren ikuspegitik, pentsamendu kritikoa sustatzen eta gizarte-ehuna sendotzen. Prozesua autonomiatik ulertzen denez, pertsonak beren eskubideen eskaeran eta indarkeriarik gabeko eta egonkortasun sozioekonomikoa duten bizitza-proiektuen garapenean protagonista aktiboak izatea sustatzen dute.

Prozesu horretatik pasatzen direnean, emakumeak sustatzaile komunitario bihurtu daitezke. Rol horretan lidergoa dute kafe-arratsaldeak, sukaldaritza-tailerrak, artisautza-topaketak... antolatzen. Espazio horietan emakumeek elkar laguntzen dute beraien bizi-prozesuetan, beren gaitasunak baloratzen eta beren eskubideak defendatzen ikasten dute. Bertan, elkarrizketa informalean bidez, indarkeria egoerak bizitzen ari direnak identifikatzen dituzten eta Cenderos-ek kudeatutako programetan parte hartzera gonbidatzen dituzte.

Horrela, Cenderos-ek indarkeria-zikloetatik irtetea eta bizitza hobeto baten bidea hartzea lortu duten ehunka emakumeen bizitza eraldatu du, espazio komunitario batean.

2.4. ETXEKO LANGILEEN TALDEA SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA

Beraien esperientziak elkar-banatzeko, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Etxeko Langileen taldeak zaintzen buruz hausnartzen lagundu ziguten, bai guregan, bai beste pertsona batzuegan. Eta funtsezko galdera bat jarri zuten mahai gainean: Nork zaintzen ditu zaintzen dituztenak?

Ibilitako bidean, euren artean zaintzea abiapunturik onena dela ikasi dute. Horrela, aisiari tarte emanaz, ostegun arratsaldetan kafe bat hartzeko eta hobeto ezagutzeko elkartzen dira, Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna elkarrekin ospatzen dute, eta ordu libreak aukera ematen dutenean, mendira, paseatzera edo bazkaltzera irteten dira elkarrekin. Baina gozatzeko espazio hauek indarkeria eta abusuak hautemateko ere balio dute, eta etxeko langileen eskubideen urraketa modu isolatuan ez dela gertatzen ulertzeko, modu sistemikoan gertatzen dela ulertzeko ere bai.

Egoera berdina bizi duten beste batzuei begiratzen dietenean eta elkarrekin eskubideak eskatzen dituztenean, langileak antolatzen hasten dira, indibidualak ziruditen aldarrikapen kolektiboak egiten, zaintzari balioa ematen ez dion sistema bat kritikoki begiratzen, eta, aldiz, hutsuneak beste batzuek zaintzeko aprobetxatzen ditu.

Horregatik, konbentziturik daude eragin politiko eta soziala egitea beren burua zaintzeko modu bat dela, errealitatea pixkanaka eraldatzen joateko modu bat. Horrela, adibidez, zaintza-zerbitzuak kontratatzen dituzten pertsonak inplikatzeko bilatzen dute, zainduen eta zaintzaileen artean sarea sortuz, zaintzen duenak lan-baldintza duinak izateko eta kontratatzen duenak nola egin jakin dezan. Modu honetan, zaintza elkarrekiko laguntza bihurtzen da, elkartasun ekimenak sustatuz.

2.5. BUTROI BIZIRIK EN TRANSICIÓN

Talde hau taldekideen borondatezko ekarpenari esker sostengatzen da, taldearekiko konfiantzatik eta bidezkoagoa den mundu bat lortzeko ilusiotik. Modu sortzailean antolatzen dira, tokiko fauna eta flora ezagutzeko bisita gidatuak antolatzeko, ingurumenari buruzko sentsibilizazio hitzaldiak eta tailerrak antolatzeko, tximeleten oasiak sortzeko, zuhaitzak landatzeko eta tokiko azoketan parte hartzeko. Horrez gain, beraien lokala bertako kontsumo-taldeentzako topagune bihurtu dute, elikadura burujabetzan aurrera egiteko borrokan.

BBTk bere eguneroko jardunean proiektuak bultzatzea posible egiten duen metodologia garatu du, boluntariotzatik, saiakeran indarrak galdu gabe, elkar lagunduz eta elkarrekin ibiliz. Sistema hau gogotsu eta laguntzaile irudietan oinarritzen da. Proiektu bakoitzak, alde batetik, pertsona gogotsu bat du, lider eta sustatzaile lanak bere gain hartzen dituena; eta, bestetik, bertaratzen diren pertsonak (laguntzaile), une jakin batzuetan gogotsu dagoen pertsonari laguntzen diotenak aurrera egiteko.

Lan politikoaz gain, BBTn ospakizun gune informalak garatu dituzte, elkar ezagutzeko, elkar ulertzeko eta taldean lan egiten ikasteko.

Bide horretan hainbat ikaspen lortu dituzte: indar eta akordio kolektiboak bideratzen; biltzen dituzten helburuak islatzen, aurkitzen, hausnartzen eta komunitatea egiten duten modu berdinean. Esperientzia horrek aktibismoari edo borondatezko lanari buruz hausnartzea ahalbidetu zuen, konpromiso-modu bezala.

3. ZIKLOAREN ITXIERA

Irakaskuntza-ikaskuntzako azken saioak egun osoko iraupena izan zuen, Basoak eskainitako aurrez aurreko saio batean, jazarpena jasaten duten giza eskubideen defendatzaileei harrera egiten dien proiektu solidario batean.

Saio honetan egindako prozesua ebaluatu zen, noraino iritsi ginen aztertu zen; era berean, sistematizazio-prozesuaren esparruan azken hausnarketak taldean sakontzeko eta doitzeko gune egokia izan zen.

Horrela, ikaskuntza eta eraldaketa logikan, elkarrekin hausnartzen dugu honako hauei buruz:

- **Taldeen barne-antolamendua**, bereziki haien funtzionamendu-egitura eta lidergo-, animazio- eta erabaki hartzeko moduak.
- Praktikatzan diren **lan-estrategiak, -metodologiak eta -estiloak**, eta egunero lantzen diren berariazko gaiak, bereziki azpimarratuz egoera ahulean dauden pertsonen parte-hartzeari eta harrerari, laguntza emozionalari, prestakuntzari, biziraupenari eta kudeaketa ekonomikoari, eta aliantzak eta loturak mantendu eta zabaltzeari eskainitako jardueretan eta espazioetan.
- **Ikuspegiak eta proposamenak elkar-banatzeko komunikazio eta hedapen** ahaleginak, bai erakunde barrura eta parte hartzen den sareetan, bai kanpora bideratzen direnak.

Prozesuaren emaitzak 7. Zeruertzeraz begira atalean aurkeztuko ditugu.

4. EGINDAKO BIDEA ELKAR-BANATZEN

Prozesuaren ikaskuntzak "BideGurutzean. Partaidetza komunitariotik elkarbizitza sustatzen" ikastaroan elkarbanatu ziren, uztailaren 3an Udako Euskal Unibertsitateak eskaintzen duen gunean eskainia. Ekitaldi honetara 15 gizarte-erakundetik gorako ordezkariak joan ziren, beren praktiketatik ikaskuntza horiek elikatu zituztenak.



6. HELMUGA: IKASKUNTZAK ETA KONKLUSIO OROKORRAK

1. BIZI-HEZI

Bide honek guztiak BiziHezi, komunitate inklusibo eta ekitatiboak etengabe eraikitzeke tresna izan du gidari, komunitate horiek eraikitzeke ditugun gaitasun indibidual eta kolektiboak sortzen, indartzen eta askatzen lagundu nahi duen autoebaluazio-tresna.

Tresnak dimentsio hauek ditu oinarri:

IZAN:

komunitateak elkar-banatzen dituen funtsezko printzipioak eta baloreak dira. Emozioak, espiritueltasuna eta pentsamendua biltzen ditu, eta talde-identitatea euskarritzen da. Dimentsio honen gainean eraikitzen du komunitateak gizarte inklusibo eta ekitatiboaren ikuspegia.

JAKIN:

ezagutza deseraikitzeke, bilatzeko, barneratzeko eta sortzeko gaitasuna azpimarratzen da, hainbat esperientzia eta ikuspegiren arteko eztabaidaren eta elkarrizketaren bidez. Hausnarketa, ekintza, emozioa, komunikazioa eta interpretazioa barneratzea dakar, norbera zein inguruko errealitatea ulertzeke eta eraldatzeko.

ERABAKI:

erabaki kolektiboak hartzea du ardatz, komunitatearen beharrak, gatazkak eta nahiak bere testuinguruan lantzeko. Dimentsio honek zehazten du nola sortzen eta aplikatzen duen boterea komunitatearen barruan, komunitatearen eskaerei erantzungo dieten politikak eta ekintzak sortzeko oinarriak ezarriz.

EGIN:

komunitatearen beharrak asetzeko lanak, mekanismoak, sinergiak eta ondasunak, ukigarriak zein ukiezinak, garatzen dira. Dimentsio honek komunitateko kideen bizi-kalitatea hobetzeko ekintza zehatza eta irtenbide praktikoaren inplementazioa eskatzen du.

EGIN dimentsioaren barruan honako azpi-dimentsio hauek daude:

ZAINZA, komunitatearen barruan ongizatea eta elkarrekiko laguntza sustatzen duten ekintzei eta praktikei buruzkoa. Komunitateko kideen ongizate emozional, fisiko eta sozialarekiko arreta eta kezka barne hartzen ditu.

PARTE-HARTZEA, komunitateko kideek erabaki eta jarduera kolektiboetan ekarpen aktiboa eta esanguratsua egitea dakarrena. Horren barruan sar daitezke proiektuetako lankidetzak, iritziak adieraztea eta komunitate-ekimenekiko konpromisoa.

BONDASUNAK ETA SINERGIAK, baliabide ukigarriak eta ukiezinak sortzea eta erabiltzea, eta komunitateko kideen arteko lankidetzak eraginkorra. Eskura dauden baliabideak eraginkortasunez kudeatzea eta norbanakoen eta taldeen arteko lankidetzak eskatzen du, helburu komunak lortzeko.

Azterketan dimentsio eta azpi-dimentsio horiek barneratzeak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan izandako aldaketa holistikoki ulertzea posible egiten du, eta alderdi bakoitzeko hobekuntza-arloak eta lorpen esanguratsuak nabarmentzen dira.

Erakunde bakoitzaren eta ikaskuntza-komunitatearen hasierako erantzunetan izandako aldaketei buruz hausnartzean, argiago ikusi ahal izan genituen BideGurutzean-ek erakunde bakoitzari planteatzeko edo ezartzen hasteko aukera eman dizkion ikaskuntzak, estrategia metodologikoa eta komunikazio ahaleginak.

2. HAUSNARKETA BATERATUAK

Jarraian, elkar-banatzen ditugun gogoeta nagusiak biltzen ditugu:

2.1. ERALDAKETA INGURUAN

- *Ibilitako bideak zeharkatzean eraldaketa pertsonal bat bizi da, motibazioarekin eta gai jakin batzuekiko oso lotura estua duena. Norberarekiko segurtasuna garatzen joaten da, beste modu batzuetan parte hartzeko aukera ematen duena.*
- *Eraldaketa kolektiboa posible egiten da beste kolektibo batzuekiko elkartrukean begirada zabaltzean. Garrantzitsua da konfiantza sortzea, kolektiboki onartzea eta hausnarketa bateratua egitea.*
- *Talde baten antolaketa-egitura malgua den heinean, pertsonak beren eraldaketa-prozesua azkartu dezakete.*
- *Kolektiboa garrantzitsua eta eraldatzailea da, norbanakotik kolektibotasunera igaroz, elkartuz, elkar berrezagutuz, elkarrekin erabakitzen, proposatzen eta gidatzen ikas dezakegun guneko komunitarioetan.*
- *Gure prozesuen parte izateak konpromiso politiko bat esan nahi du, eta konpromiso hori beti hor dago neurri batean, bai borondatezko lanean, bai ekonomikoki ordaindua den lanean. Konpromiso pertsonala ere esan nahi du, pozez hartzen dena et indartu egiten dena erakundearen konfiantza, truke eta zaintzarako guneko goxoa dagoenean.*

2.2. ANTOLATZEKO MODUEN INGURUAN

Beharrezkoa da egituretan malgutasuna bilatzea, taldea osatzen dugunon beharren, apustu kolektiboen eta gurekin lan egiten dugun pertsonen errealitatearen arabera.

Behar bat elkar-banatzeak ez du esan nahi, nahitaez, helburu bat partekatzen denik. Helburu komuna batera eraikitzen da, taldearen egunerokotasunean parte hartuz.

Talde batek bultzatzen dituen ekimenak kideen interesen, beharren eta borondatezko ekarpenaren mende soilik daudenean, konpromisoa, funtsean, taldea osatzen dutenen artean ezartzen da, eta, beraz, **antolatzeako moduak malguak eta sortzaileak izan daitezke, funtzionatzen dieten bezainbeste.**

“Gure kasuan, ez dugu behar gaituzten pertsonekin lan egiten, ez dugu gure mende dagoen jenderik; orduan, gure proiektuak dira sortzen zaizkigulako eta besteek egiten ez dituzten gauzak egin nahi ditugulako, ez dira ezinbestekoak, oinarrizko premia bati erantzuten ez diogulako, komunitatearen bizi-kalitateari ekarpena egin nahi diogulako. Horregatik ere, ez diogu inori ordaindu behar jardunaldi batean egotegatik eta proiektu horiei erantzuteko, ez gara korrika ari proiektu bat aurkezteko, boluntarioak baikara, eta ez dugu nahi inork gu presionatzerik. Geure denbora eta dirua jartzen dugu “.
Belén, BBT.

Beste kasu batzuetan, **lan-egiturak, gainera, gure lanaren mende dauden populazioekiko eta aldaketa-prozesuekiko konpromisoa lehenesten du**, baita laguntzen duten instantziekiko konpromisoa ere. Horrek berebiziko garrantzia du, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden eta egoera zaurgarrian dauden biztanleen eskubideen loturan eta defentsan, hala nola migratzaileena eta, batez ere, emakume eta gazte migratzaileena, bai eta zaintza-lanetan aritzen diren emakumeena (ordainsari ekonomikoarekin edo gabe), edo jazarpena bizi duten edo arrisku horretan bizi diren gizarte borrokariena ere.

“Autozainketaren gaia daramaten emakume migratzaileen kooperatibari izugarria gertatu zitzaion. Etxeko langileak dira, esplotaziotik atera nahi dute, kooperatiba bat sortzen dute eta dirulaguntzak edo laguntzak izateko euskara beharrezkoa da. Orain ikasten ari dira, baina ia itxi beharra izan zuten horren ondorioz. Kooperatiba sortzen duzu eta ondoren horma hauekin egiten duzu topo, emakume hauek negar egiten zuten ezin zutelako beste urrats bat ema. Beren jardunaldiekin orain ikasi dezakete, eta ikasten ari dira, baina euskara ikasteak urteak dira”.
Tatiana, Etxeko Langileak.

Rolak aldatzea lehen urratsa da rolak zalantzan jartzera iristeko, lehendik dauden rolen arabera ez jarduteko, baizik eta pertsona bakoitzak dituen talentuak ezagutzeko eta horri balioa emateko. Horrek benetan eraldatzen ditu prozesua bizi duten pertsonak.

2.3. ESTRATEGIEN, METODOLOGIEN ETA LAN-ESTILOEN INGURUAN

Askoz ere jasangarriagoa den aktibismo bat bizitzeko moduak bilatu behar dira, egiten dugun pasioak autozainketa ez ahantzaraztea, ezta ondoan dugun pertsona alde batera uztea ere, non harrera, konfiantza eta zaintza kolektiborako espazio baten parte sentitzen garen, aitortzen eta laguntzen diren zeregin eta erantzukizun errealistekin.

“Espazio seguruak eraikitzeak, harrerakoak, non jendea konfiantzan eta aske sentitzen den parte hartzeko nahi duenean eta nahi duen horretan eta nahi duen mailan, horrek pertenezia sortzen du. Sentipenetik elkarbanatuz eraikitzen dira, eta hortik eraikitzen dira gainerako harremanak, gero parte hartzeko aukera emateaz gain, batez ere parte hartu nahi baduzu.”
Sheila, Emaús.

“Aktibismo jasangarria bizia ematen duen bat da. Gaur pertsona bat izan daiteke eta bihar beste bat, baina aktibismoa beti dago. Aldaketarako erabiltzen ditugun bideen orekak probatu ditugun bide guztiak hartu behar ditu kontuan, nire osasuna zaintzen dudana oreka bat, eta lan egiten badut eta soldata bat jasotzen badut, nik badakit ordaintzen didatenagatik bikoitza egin dudala, baina ez dut sentitzen esplotatzen nautenik, beste parte nire aktibismoa da, nire konpromisoa. Metodologia bezala, asko dira, Butroitik hasita, inor kontratatua ez dutenak, Emaúsera, kontratazioekin, eta biek helburu berdina dute, aberastasun horrek bideratu behar gaitu gure lanean, pertsonak eraldatzeko”.
Marysol, Cenderos.

Gure prozesuetan parte hartzea beti da aberasgarria, aukera ematen du norberarengan eta espazioan konfiantza sortzeko, bere burua kolektiboki ezagutzeko, nor bere buruan eta besteen ondoan hausnartzeko, norbaitek azaltzen duela senti ez dadin, bestela batera pentsatzen eta erabakitzen dela. Erakundea osatzen dugunontzat bizipen baliotsua da, baita estrategia metodologiko bat ere gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden biztanleei laguntzeko. Pertsona horientzat eraldatzailea da aktiboki parte hartu ahal izatea, taldean rol desberdinak izatea eta, gainera, beren jakintza eta gaitasunei balio ematera eramango dituzten prozesuen parte izatea.

“Ekonomikoki biziraupenean gaude, baina apustu egiten dugu begiraleak edo dinamizatzaileak prozesu batetik etorri diren pertsonak izan daitezen; orduan, erreferente berriak sortzeko, inguruko eskoletan prestatutako pertsonen jostuntza edo kakorratza bezalako tailerrak ematea eskaini genuen, erreferente horiek sortzeko, Xen amak tailerra ematen baitu, eta hurrek jada ikusten baitute eta balio bat aitortzen baitiote. Ziur gaude eraldaketa lortuko litzatekeela komunitate super sendoaren mailan, haur migratzaile baten harrotasuna bere amak ekarpena egiten duenean, bere ikaskideen artean eta hezkuntza-komunitatean, familian, taldean ikusgai egongo litzatekeena...”
Paloma, Gu Haziak Gara.

“Erakunde batean egoteak ez du esan nahi Batzarrak bezalako baldintza juridikoei erantzun behar zaienik bakarrik; egunerokoan pertsonak bildu eta hausnartu egiten dira, beren buruari galdetzen diote: nola goaz, norantz goaz, aurrera egiten ari gara aldaketan, zer arazo eta zer muga izaten ari gara? Nola egin ditzakegu proposamenak eta konponbideak? Egunerokoan aurkitzen dituzte formarik onenak, beren helburuetarako funtzionatzen dutenak eta lan egiten duten pertsonak. Parte hartzeko eta erabakiak kontzienteki hartzeko informazioa eduki behar da eta erakundearen funtzionamenduaren parte izan behar da.”

Marysol, Cenderos.

Sare-lanak komunitate inklusiboak sortzen ditu, baliabideak elkar-banatzeko aukera ematen du, eta pertsonak eta erakundeak egiten dugun lana indartzen du.

2.4. KOMUNIKAZIOAN ETA DIFUSIOAN

Komunikazioa ez da pentsatu behar soilik egiten duguna kontatzeko, baizik eta lotura, empatia, interesa, sentsibilizazioa eta jendea prozesuetan inplikatzeko metodo gisa.

Garrantzitsua da komunikazio-tresna zehatzak erabiltzea helburu ezberdinetarako. Ahoz ahoko komunikazioa eta konfiantzazko lana beharrezkoak dira oraindik beste pertsona batzuei mundu beste betaurreko batzuekin begiratzen laguntzeko. Sortzen eta komunikatzen laguntzen duten tresnak eta teknologiak ere aprobetxatu behar dira, hala nola sare sozialak.

“Taldean hausnartzeko elkartzen garen horrelako lanetan, Internetek gauzak elkartzen lagun diezaguke, aurrez aurreko moduan ez bada ere. Bideo-deia ere aurrez aurrekoa da, aldi berean sinkroniko eta asinkroniko elkartzea da, tresna batzuk diseinatzen ditugu, galderak, guztion artean ekarpenak egiten ditugu, sistematizazioaren emaitzetan ere bai, kolektiboarekin partekatzeko eta berriro irakurtzeko aukera dutenean”.

Marysol, Cenderos.

“Etorkizunean, beste elkarte eta erakunde batzuen kanalak erabili nahi ditugu komunikazioa osatzeko, webguneetako atalak... Sareetan lan egin behar da hobeto kokatzeko. Erakunde askorekin harremanak ditugu, baina ez ditugu haien komunikazio-lanak erabiltzen gure informazioa zabaltzeko, erraza dirudi eta nahiko eskuragarria”.

Paloma, Gu Haziak Gara


3. BIZIKIDETZA SUSTATU PARTAIDETZA KOMUNITARIOTIK

Esperientzia guztiek erakusten dute **parte-hartzea garatzen den gaitasun bat dela**. Horretarako, behar dira informazioa, bizi-dinamikan sartzea, autobalorazioa, konfiantza eta komunitate-zentzua.

Hori dela eta, prozesu honen ikaskuntza nagusia prozesuaren parte sentitzearen garrantzian datza, elkarrekin lankidetzan jarraitzea ahalbidetuko digun konplizitatea sortzeko. Ikaskuntza hori BideGurutzean osatzen duten erakundeen barnera estrapolatu daiteke. Horrela, parte-hartze komunitarioa eta, horren ondorioz, pertsonen eraldaketa sustatzeko gakoak aurkitzea izan da prozesuaren erronka nagusietako bat. Ildo horretan, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Hezkuntza Herrikoiaaren ikuspegiak eta esperientziak sistematizatzeko metodologiak prozesu eraldatzaileak eraikitzea ahalbidetzen dute, modu esanguratsuan bizi eta atzematen direnak, esperientziak aberasten dituztenak eta lotura mobilizatzaileak sortzen dituztenak.
- Premiazkoa da nork zaintzen gaituen horren kontzientzia sortzea. Batez ere, zaintzek dakartenak; alde batetik, aitortu eta aratu beharko litzatekeen lan profesional bezala, eta, bestetik, feminizatu eta azpigaratutako eguneroko zeregin gisa, baina, hala ere, funtsezkoak dira bizitzarako.
- Prozesu hau aurrera eramaten dugunak batez ere emakumeak izateak konplizitatea sortu zuen gure artean, ideietatik eta emozioetatik. Horrek lagundu du bide guztian zehar ikuspegi feminista bat izatea.
- Ez da erraza gizartea eraldatzeko antolatzea. Aukerak ikasten eta probatzen ari gara, bidea eta estrategiak aztertzeko beharra argi dugu. Eta, batzuetan, zerumugak oso urrun dirudien arren, dagoeneko ematen ari garen eta jendearen bizitza eraldatzeko eraginkorrak izaten ari diren urratsak baloratu behar dira.

Femgarabat-eko lankideek egindako hurrengo akta grafikoan, parte-hartze komunitarioko eta bizikidetzarako funtsezkoak diren praktikak eta hausnarketak jasotzen dira, prozesuaren amaieran udako ikastaroan gertatutako bidegurutzetik abiatuta.



ANIZTASUNA KOMUNITARIOETIK ELKARBIZITZA SUSTATZEN



BIDE- GURU- TZEAN

Eibar - Markeskoa Jauregia
2023-07-03

Gazarte bazterketa arriskuan dauden pertsona laguntzen, ekonomikoki zein espirituala

Gure herria hobetu nahi dugu, pertsona gazteak dugu laguntzeko gaitasuna. TOPAGUNE BAT SORTU

Eperientzia oso aberasgarria da, bertan jende asko ezagutzen duzu

1. Harremanak sortu nahi ditugu giro kaldu eta epiki beldun. ANIZTASUN horria: kultura, beldunaldak, generoa...

2. Bazterketa arriskuan dauden pertsonen bizitza normalizatu nahi dugu: herria osatzen, prestakuntza eta herria eziten dabilen bizitza

3. Prestakuntza ez aniztatu eskaintzen dugu, bertan lanbidea hartzen dituzten kolektiboen beharrik eta trebeziak nahi dituztenak

4. Boluntarioen lana eskaintza eman nahi dugu, kalera ateratzeko

5. Bazarretan enpresa sortzeko oportunitateak erabiltzeko laguntza ematen dugu, enpresa sortzeko oportunitateak

6. Lehenengo egiten duguna da, zeritara sartzen den edozein pertsonari honera egia: Entzun gitea dugu, bera egoera hobetzen saiatzen gara, asko berrantolatzen gara, elkar zaintzen dugu.

Barre, negar, infusioak hartu, elkar entzun, elkarri begiratu

Geuztatu, erkar-lanak, murrak...

Paloma Martínez
GU HAZIAK GARA LAGUNTZA ELKARTER ARETXAIALETA

Aliztara asko biltzen ditugu. Unibertsitatekin, elkartekin, enbalduekin... elkartuta saiatu jar dezakegu beharrezkoa den ezagutza gazte aliztara kolektiborako

Batez ere len egiten dugu nikaraguar emakume migrotuekin, baita errefuxiatu eskaerekin eta bertara biztanleekin (batez ere mugos bizi direnak)

Cendros 1999an sortu zen eta gaur egun 3 bulego ditugu (Costa Rica)

4 gai nagusi hartzen ditugu:

1. Genero indarkeriaren prebentzioa. Emakumeen sartzailerekin, komunikatzen

2. Giza eskubideen ariketa. Murrak ezin dituzten pertsonak dira!

3. Tokiko ekonomia alternatiboa. Gazarte ikuspegi solidario bat berrantolatzen

4. Giza laguntza. Arreta emateko berehalako erantzun bat

Gure estrategiak:

Komunikazio eta prestakuntza → **Estrategia pizgarria (erria, bai behar sartzaila onuzkoak... ez dute erria sartzen udan)** → **Partaidetza inbentzioa** → **Ekimen ekonomikoak (tikapenik ezaizti, negozio bat ireki...)**

NOLA PARTE HARTU?

Parte hartzen ikasi behar dugu

Komunitate sentimendua. Tatarok sortu

Auto-balorazioa eta norberaren kanalizazioa

Marysol Amador
CENDROS COSTA RICA

1. GALDERA

Eta gure erakundeetan, nola sustatzen dugu partaidetza?

Partaidetza komunitarioko **ERREFERENTEAK** ezagutu

Imanol Legarda
1. mahaiko dinamizatzailea

EMOZIONALKI INPLIKATzea
eraldaketa erreala izan dadin

Proiektuak **PROZESU** moduan ulertzen



Aberasgarriagoa da

AGERIKOTASUNA
gizartean zein parte-hartzaileengan eragin handiagoa izateko



BIZIKIDETZA
egunerokotasunean

"Lortzen ez dena ere lorpen bat da"

Jone Urionaguena
3. mahaiko dinamizatzailea



INKLUSIOA komunitatean ematen da
Lankidetzeta: Partaidetzarik gabe ez dago inklusiorik

PARTE-HARTZEA sustatzen du **MOTIBAZIOA** darabina **EKINTZARA**



Espazio pribatutik **ESPASIO PUBLIKORA**
Herriarrek prozesua ikus dezakete



NO RANTZABIKOA
Norena da motibazioa?
Parte-hartzaileena edo koordinatzaileena?



IKASPENAK: LATINOAMERIKA
ZAINTZAKEN garrantzia: Erlazioak eta prozesuak

2. GALDERA

Egiten dugunak, errazten du bizikidetzeta gure...

SAREAN LAN EGIN
aniztasuna lantzeko

Espazio hauek funtzioak dira sarean gorpuzteko

Pertsona bakoitzaren **INTERESAK ETA GAITASUNAK**

Ezagutzak partekatzen
Aukerak ematen

ROL
belaunald...

KU



ERREAL
BEHAR BA

integ...
Bizitza historik...
baztertzen dituzte



ESPASIO SEGUR
kafe baten ingur...

ELKARBIZITZA SUSTATU PARTAIDETZA KOMUNITARIOTIK



Eibar - Markeskoa Jauregia
2023-07-03

...e egunerokotasunean?

5. GALDERA

Zer ikasi dugu jardunaldi honetan gure egunerokotasunean garatu dezakeguna?

ALDAKETA
...iak eta jatorriak
+
IDEATZA



TATE ETA KOITZETIK
...ratzen
...ak pisatzen eta
...en motxilak dira.



QUAK
...RUAN

BARREAK ETA OSPATZEAK
gertutasuna erretzen du

ESTRATEGIAK TRUKATzea
gure testuinguruetan aplikatzeko

ESKUBIDEAK ERREKLAMATZEKO
Informazio elkuragarri izatea oso garrantzitsua da

ELKAR-EZAGUTZA
Komunitatearekin badago, elkarbizitza erraztuko **ERRESPETUA** sortuko da

EZ DA LINEALA
Partaidetza pazientzia eduki behar da

SEGURUAK ETA ERREPIKAGARRIAK
Espazio sortzea pixkanaka parte-hartera ausartu daitezten

ERRONKAK:

- Estereotipoak haustea
- Migrazio-dolua murriztea
- Gazte eta haurrekin lan egitea
- Jarduera ez-formalak: sormena eta artea

EGUNEROKOTASUNA
aldatzen dugu, gizariek jartzen dizkigun oztopo horiek ahultzeko ditugu

PROZESUAREN PARTE
izatera gonbidatu jarduera konkretuekin

DENBORAREN BALIOA

- Ordu-tegi mailguak parte-hartu ahal izateko
- Antolatzen ematen dugun denborari balioa ematea

Nagore Lopategui
2. mahaiko dinamizatzailea

Eva Carazo
4. mahaiko dinamizatzailea

1. ZERUMUGARA BEGIRA

Bide honetan, agerian geratu da gizarte gisa prozesuan oso presente egon ziren erronka batzuei modu bateratuan aurre egin behar diegula. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: migrazioaren errealitatea, generoarekin eta gazteriarekin duen elkargunea, zaintza gaia den estrategikoa eta hauskorra, eta hizkuntza berekin dakarrena harremanak izateko, errealitatea ulertzeko eta iraultzeko esparru gisa.

Zaintza-ingurune bat sortzea eta arlo horretan eskubideen errespetua bermatzea ez da erronka erraza, zaila da sistema arrazista eta misogino bat haustea. Konpromiso eta sentsibilizazio pertsonala behar da, bai eta erakundeetan zaintzak lehenesten lagunduko duten estrategiak ere, bai gure erakundeen politiketan, bai herrialdeetako politika publikoan.

Eta hor ari dira indarrak jartzen BideGurutzean osatzen duten erakundeak. Izan ere, prozesu horretan parte hartzen zuten bitartean, gizartearen eraldatzeko bidean jarraitu dute.

“Nik uste dut guk kategoria berriak atera beharko genituzkeela. Ahalduntzea errepikatzea baino gehiago, agian botere-harremanak benetan zalantzan jartzen ez dituenak, pentsa dezagun nola sar ditzakegun indarra eman dezaketen kontzeptuak, urratsa emateko behar duguna, alegia”.

Marysol, Cenderos.

“Batuetan lana oso gogor egiten dugu, ez dugu gure burua zaintzen, hainbeste egitearen ondorioz depresioan eta antsietatean erortzen gara, eta lan-kargak ez digu uzten ondoko pertsonak sentitzen duenari arreta jartzen. Gure artean zaintzen ikasten ari gara, kideari bazkaldu duen galdetzen, atsedean hartu duen, paseo bat ematera joango garen... Eta zure burua zaintzea, gure erritmoak eta egiteko moduak ikasteda”.

Jone, SOS Arrazakeria.

Eraldaketa dagoeneko mugimenduan dago

Hona hemen prozesu horien adibide batzuk:

1. PROPOSAMENA

Alfabetatze praktikoa eta politikoa, geure errealitatea idazteko

NOR

Cenderos (Upala, Costa Rica)



HELBURUA

Cenderos-en xede-populazioetan oso presente dagoen analfabetismoari lotutako zaugarritasuna artatzea, prozesuan errealitateari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko tresnak eskainiz.

ZER

Hezkuntza Herrikoitik abiatutako alfabetatze-prozesu bat diseinatzea eta kudeatzea, hezkuntza formala gauzatu egin ez duten edo irakurketa-idazketa galdu duten helduentzat. Prozesu honek irakurketa-idazketa trebetasunak garatzea bilatzen du, parte-hartzaileen gertuko erreferenteetatik abiatuta, pentsamendu kritikoa eta eraldatzailea estimulatzearekin batera.

NOLA

BideGurutzean-en esparruan, alfabetatze-prozesuaren pilotajea egiten da, Cenderos-ek lagundutako talde eta ekimenetan identifikatzen diren pertsona interesdunen egoeraren eta errealitatearen arabera planifikatzeko eta praktikan jartzeko.

EMAITZAK ETA HURRENGO URRATSAK

Proposamen hau BideGurutzean ekimenaren esparruan sortu zen, eta forma hartzen hasi zen, jakintzak trukatzearen eta gizartea eraldatzearen aldeko ikuspegiak eta praktikak biltzen zituen topaketan.

Hurrengo urratsen artean, pilotajetik abiatuta proiektu-profil bat egitea dago, parte hartzen dutenen lekualdatzean eta elikaduran beharrezkoak diren baliabideak kudeatzeko. CEP Alforjak prozesuaren diseinu metodologikoa babestuko du. Halaber, aliantzak lotuko dira proposamenaren ikuspegiarekin bat datozen eta hura garatzen lan dezaketen unibertsitate publikoekin.

2. PROPOSAMENA

“Urretxindorra” gizarte-mentoretzako programa ezartzea adingabeekin Aretxabaleta-Arrasate inguruan.

NOR

Gu Haziak Gara (Aretxabaleta, Gipuzkoa)



HELBURUA

Programan parte hartzen duten adingabeen ongizate pertsonala, emozionala eta soziala bultzatzea, autoestimua indartzeari, trebetasun pertsonalak eta harreman-trebetasunak garatzeari, esperientzia berriak bizitzeari eta bizi diren lekuko espazio berriak ezagutzeari esker.

ZER

Elkarteak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei eskaintzen dien eskola-errefortzuko prozesuari jarraipena ematea, gizarte-mentoretzako programa baten bidez. Programa horren bidez, topaketak sortzen dira unibertsitateko edo goi-mailako ikasleen (mentoreak) eta jatorri etorkineko 10-14 urteko haurren (mentoratuak) artean.

NOLA

Lehenik eta behin, banakako elkarrizketak egiten dira boluntarioekin, mentoreak izango direnak, programaren zalantzak eta konpromisoak argitzeko eta profil zehatza egiteko. Profil hau mentoratua izango denarekin parekatzeko erabiltzen da. Aldi berean, mentoreek 10 orduko prestakuntza-prozesua egiten dute, eta bertan, mentoretza-lanerako beharrezkoak diren alderdiak eta tresnak lantzen dira.

Ondoren, hasierako festa bat ospatzen da, bertan bikoteak elkar ezagutzen dute, hortik aurrera, astean arratsalde batean (2 ordu inguru) biltzen hasten dira ikasturte osoan zehar, aisialdiko planak egiteko, hitz egiteko, paseo bat ematera joateko... Hitzordu bakoitzaren ondoren, mentoreak harremanaren egoera azaltzen du Tellfy aplikazioaren bidez. Horrek aukera ematen die proiektuko teknikariei harremanen jarraipena egiteko, aurrez aurreko bilerekin, talde-tutoretzekin eta telefono-deiekin batera.

Azkenik, “agurtzen ikasteko” talde-prestakuntza egiten da, alderdi mentorearekin, bikoteei kudeaketa sozio-emozionalerako tresnak emateko helburuarekin.

EMAITZAK ETA HURRENGO URRATSAK

Bost bikoterekin proba pilotu bat egin da 2023ko apiriletik uztaileira. Bertan, Kurtzebarri ikastetxeko eta Aretxabaletako Lanbide Heziketako Institutuko ikasleek parte hartu dute.

Prozesuaren emaitzen aurrean, jarraipena emango zaio 2023-24 ikasturtean, esperientzia 12 bikotetara zabalduz eta zerbitzua eskatu duten ikastetxe gehiago gehituz.

3. PROPOSAMENA

Etxeko Langileen arteko topaketa-talde egonkorrak sortzea.

NOR

SOS Arrazakeria Gipuzkoako Etxeko Langileen Taldea (Errenteria, Gipuzkoa)



HELBURUA

Etxeko langileek jasaten duten isolamendu soziala haustea, elkartzeko, entzuteko eta aisialdirako espazioak sortuz, ongizate fisiko eta emozionalean eta ahalduntze-prozesuetan eragiteko, eta, aldi berean, haien autonomia, parte-hartze komunitarioa eta, ondorioz, autoestimua sustatzea.

ZER

Etxeko sektorean lan egiten duten emakumeen arteko kafe baten inguruko asteroko topaketa-talde informalak sortzea, batez ere barneratuta daudenak; izan ere, egunean 2 ordu libre baino ez dituztenez, gizarte-isolamendu handiena pairatzen dutenak dira.

NOLA

Langileak biltzeko egun eta ordutegi bat ezartzen da. Era berean, emakume langileentzako erreferentziazko gunek bat aukeratzen da elkargune izango den herri batean. Astero, bileraren aurreko egunean, mezu bat bidaltzen zaie langileei asteko hitzordua gogorarazteko. Iristen diren lehenengoek kafea, edari hotzak eta mokadutxoak prestatzen dituzte.

Espazio horretan, emakumeek bizitza-esperientziak eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa elkar-banatzen dituzte, eta, batzuetan, arazoak eta zailtasunak eztabaidatzen dituzte. Aisialdiko jarduerak eta prestakuntzak ere proposatzen dituzte. Elkartzeko eta irteteko ordu malgutasuna funtsezkoa da parte-hartzea sustatzeko. Aktiboki parte hartzen dute, eta beste emakume batzuekin konektatzeko, laguntza-sareak ezartzeko eta komunitate-jardueretarako ideiak sortzeko leku informal bat izatea baloratzen dute. Topaketa informal horiek ezinbestekoak dira lurraldeko langileen parte-hartzea eta auto-antolaketa sustatzeko.

EMAITZAK ETA HURRENGO URRATSAK

Proba pilotu bat egin da Errenterian, eta bertan finkatu da espaziora erregulariki joaten diren 12-15 emakume talde bat. Beste herri batzuetan lanean dauden eta ordu libreetan Errenteriaraino joan ezin diren langileen, beste talde batzuk sortzea eskatu dute beste zonalde batzuetan. Horregatik, uztailan ekimena Irunera hedatu zen. Era berean, Donostiako Emakumeen Etxearekin lankidetzan, irailean beste talde bat hasi zen Donostian. Gaur egun, Tolosako udalarekin eta emakumeen etxe berriekin elkarlanean ari dira, herri horretan talde berri bat sortzeko.

4. PROPOSAMENA

Kafe-hondakinak baliabide bihurtzea

NOR

Butroi Bizirik Trantsizioan (Mungia, Bizkaia)



HELBURUA

Hondakinak baliabide bihurtzean oinarritutako hondakinak kudeatzeko eredu alternatiboa sustatzea, ekonomia sozial eta solidarioaren balioetan oinarritutako den ekonomia zirkularraren eredu sustatzeko.

ZER

Kafe-hondarrek izan ditzaketen erabilerei buruzko ikerketa, ekonomia sozial eta solidarioaren balioetatik, gizarte-bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonak enplegatu ahal izango dituen enpresa bat sortzeko asmoz, gizarte-eragileekin eta tokiko negozioekin lankidetzaz bilatuz.

NOLA

Kafe kontsumoarekin sortzen den hondakin kopuruaz jabetuta, hondakin horri munduko hainbat lekutan ematen ari zaion erabilerari buruzko ikerketa egiten ari da. Emaizak aztertu ondoren, gizarte- eta ingurumen-arazo bati baino gehiagori erantzuna eman diezaiokeen aukeratzat hartzen da: kafe-hondarrak biomasa-pellet bihurtzea.

Idea hori zentratu ondoren, negozio-plan bat burutzen da kafe birziklatuaren pelleten birziklapena, berrerabilera, fabrikazioa eta salmenta bideragarria den aztertzeko. Horretarako, sektore honetako enpresa ezberdinekin kontaktatzen da, eta, aldi berean, ekonomia sozial eta solidarioaren balioek orientatutako aholkularitza baten laguntza jasotzen du.

EMAITZAK ETA HURRENGO URRATSAK

Bideragarritasun planak adierazten du kafe-hondarrak pellet bihurtzearen energia-balantzea negatiboa dela Euskadin. Hau da, kafe-hondarrak lehertzeko inbertitutako energia handiagoa da hondar horiek pellet bihurtu ondoren sortuko luketen energia baino, eta hori ez litzateke gertatuko klima epelagoa eta hezetasun gutxiago duten lurraldeetan.

Hori dela eta, aukera ezberdinak bilatzen ari dira, hala nola lan hori penintsulako beste leku batzuetan egin dezaketen enprekin lankidetzan aritzea, edo beste produktu batzuk (kosmetikoak, adibidez) egiteko kafe-hondarrak erabiltzea. Horretarako, harremanak ezarri dira probak egiten ari den Mungia-ko emakume artisau batekin.

8. DIFUSIORAKO MATERIALAK

Proiektuari buruz gehiago jakin nahi baduzu, **Emaús Gizarte Fundazio**ko webgunean edo bere kanaletan bila dezakezu:

Youtube: [BideGurutzean bideoa](#)

Emaús-eko webguneko [podcast atalean](#).

Emaús-eko blogean hurrengo artikulua irakur ditzakezu (emaus.com/tiene_sentido):

- [Bideak eta mugak zeharkatuz, beste mundu posible batzuk eraikitzeko](#)
- [Espazioari buruz hausnartzen, arkitekturatik komunitatea eraikiz](#)
- [Ezagutzak partekatuz gure komunitateak hobetzeko](#)
- [Darkum-engandik ikasten, asko irakasteko duen elkarte gazte bat](#)
- [Egunerokotasunetik eraldatuz Gu Haziak Gara elkarteari](#)
- [Cenderos, lurraldetik haratago komunitatea eraikitzen duen erakunde mugakidea](#)
- [Nork zaintzen gaituen konturatuz SOS Arrazakeriako etxeko langileen taldearekin](#)
- [‘Kezkatzen bazaitu, egizu!’; Butroi Bizirik Trantsizioan elkartetik ekitera gonbidatzen gaituzte](#)

Prozesu hau hurrengo publikazioei esker sortu da:

- [\(H\)aritz](#)
- [BiziHezi](#)

Gainera, ondorio nagusiak Emaús-eko webgunean deskarga dezakezun 2024rako planifikatzaile batean bildu dira.

Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren webguneko atal honetan ere aurki dezakezu informazio guztia: <https://sosracismogipuzkoa.org/bidegurutzean/>

ELKARTEA

AKONPAINAMENDUA

ZER



ALFABETATZEA
PRAKTIKA ETA POLITIKA



PROGRAMA
"URRETXINDORRA"
MENTORIA SOZIALA
ADINGABEEKIN



ETXEKO LANGILEEN ARTEKO
TOPAGUNE EGONKORRAK



KAFE-HONDAKINAK
BALIABIDE BIHURTZEA

NOREKIN

JARRAIPENA



COSTA RICA KO EMAKUME
ERREFUXIATUAK
MISKITA CREOLE

ALIANZAK EZARTZEA



x5 bikote

10-14 AÑOS



ADULTO

DEBAGOIAENA



x12



ZABALTZEA



KOSMETIKOAK
EGITEA



